

Mano - Green

Mano - Green



M- 66269
F- 70192

ATF
29475

GURUTCEAREN

BIDEAREN GAINECO

ISTRUZIONE

LIBURUA.

Cer den Gurutcearen Bidea.

GURUTCEAREN bidea da berenaz gure Salbatçaileac bere gurutceaz carginua iragan çuen eremua; erran nahi da, condenatua içan cen Pilatusen ethetic eta gurutceficatua içan cen Colbarioraino, non aurkhicen baitituzte mila hirur ehun eta hirur hogoi urhax. Beraz gurutcearen bidearen eguita da, eremu horren iragaitea. Funski eguiteco, bide horren iragaitean, behar da içan hunkitua han Salbatçaileac eguin dituen phausu odolstatuei emana den sentimenduez. Hura Cerurat iganez gueroz Biryina Sainduac, eta haren exemplura Jerusalemeco presuna debotec, maiz eguiten çuten bide hori. Guero debocione horren laguntceco, eman cituzten seinale batçuec Salbatçaile maitea, bide hartan cerbeit guerthaturic, baratua egon cen tokietan. Guiristinotasuna hedatcearekin laster abiatu ciren hel ahal citezkin tokietaric bide horren egui-

ten; eta eçagutu hainitz gracia bereciac ardiesten cela debocione horren bidez. Hori ikhussiric Aita Sainduec eman cituzten indulgenciaric handienac debocione hori praticatcen çutenei.

Bainan, ikhussiric hanitz guristino içanen cirela gracia horiez gabetuac, toki hartarat ecin yuanez, Aita Sainduec nahi içan dute eguin Jesu-Cristoc gurutceaz cargatua, Olibetaraco bidean eguin cituen phausuen figura bat, emaiten direlaric Elicetan distanciatie distanciarara phausu hec errepresentatcen dituzten erretaula edo gurutce batçuec eta tokiaren beraren gainean bere Estacioneac eguiten dituztenei, indulgentcia handi hec berac eman dituzte, eratchiki ondoan erretaula eta gurutce hauyer; bainan Estacioneac erretaula eta gurutce heyen beraren aiticinean eguinez.

Aitcinagoco Aita Sainduen gainera, Pio VI garrenac hedatu nahi içan du debocione hori, capereten emaita permitcerainocoan Estacione horiec.

Ikhussia da debocione hori, J. Christoc gure salbameduco eguin dituen phausu odolstatuen consideratcerat, harentçat den loriosena, haren Ama Biryinarentçat den gogoracoena, bekhatuaren higuintcerat, nekheen jassaiterat, eta J. Christoren amodiorat bihotcen erakhartceco den abantailosena dela.

Estacioneac eguin aldi bakhotchean hanitz indulgentcia irabazten da; bainan bat bederac ossobat baicen ez beretçat. Aita Sainduen chedea da Purgatorioetaco arimei applica dazkioten ahalaz, Benoit XIII garrenac erraiten daucun beçala.





NORC BERAC

GURUTCEAREN BIDEA

EGUITECO MOLDEA.



*Hartarat preparatceco Sacramendu Sainduaren
aitcinean eguiteco Othoitça.*

○ JESUS, ene Salbatçaile dibinoa! huna non naicen abuspez çure oinetan, enetçat eta çure gracion hil direnentçat misericordia galdetceco. Pharteliar eguin gaitçatçu, othoi, gogoan erabilitcera nohan çure pasionearen merecimendu neurrigabeez. Nigarrezco eta auhenezco bide huntan hain urriki minaz hunki çaçu ene bihotça, non ekharria içanen bainaiz bici huntaco nekhé gücien gogotic jassaiterat çu gatic.

Eta çuc, Gurutcearen bidea lehenic irakatsi daucuçuna, Maria Saindua, eguiçu othoitz Trinitate Sainduac munduan içaiten dituen affruntuen erreparacionetan onhets detçan hemen Izpiritu Sainduac inspiratuco daitan dolorezco eta amodiozco sentimenduac.

I^{co} ESTACIONEA.

Jesusen hiltcerat condenatua.

CONTSIDERA çaçu hemen Jesusec cein amulxuki harcen duen arrasta bat hain injustua, eta orhoit çaitte ez duela Pilatusec condenatu Jesus, bainan çuc eta bekhatoros guciec galdetçen guinduela haren heriotcea. Erroçu beraz behaçunic mine-narekin :

O Jesus adoragarria ! ene bekhatuec hilaraci çaituztenaz gueroz, eguidaçu, othoi, gracia he-taz damu guehiago içaiteco gaitz suerte guciez baino, eta ekharriac içaiteco lehenago hiltcerat ere bekhatu eguinen dugun baino.

Erraçu guero Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

II^{en} ESTACIONEA.

Jesus gurutceaz cargatua.

CONTSIDERA çaçu hemen Jesusec cein bihotz onez hartcen duen bere heriotceco tresna latzgar-

ria bere soin sarraskituen gainean. Horrela irakatsi nadi daucu nola hartu eta ekharri behar ditugun, nondic eta noren ganic nahi heldu çaizcun gurutceac.

O Jesus amulxua ! ez cinduen çuc ekharri behar gurutce hori, bainan nic bekhatoros dohacabea. Emadaçu behar dudan animoa, çure exemplura, bici huntaco nekheac eta axecabeac errencuratu gabe jassaiteco ; Aita on beçala çure Probidentcian nahi içan duçunaz gueroz heyen bidez eguin deçadan bekhatuen satisfacionea, eta ardiez çure loria.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

III^{en} ESTACIONEA.

Jesus eroria Gurutcearen pean.

CONSIDERA çaçü Jesus Olibetaraco bidean. Açote eta arrantcezco khoro crudelec hambat odol galaraci cioten, non flacatua erori baitcen gurutce dorphearen pean ; eta ez da altchatcen tratamenduric gogorrenac patientciaric handienarekin jassanic baicen. Hola nahi du eguin, eta guri irakhatsi gure eroricoen, eta guciz bathayoco gracia galaraci darocuten bekhatuen satisfacionea eguiten.

O Jesus ona ! eguiçu, othoi, orhoit nadin be-thi bihotzminic handianerekin ene gatzetasuneco

lehen bekhatuez, eta disposicione Sainduekin hurbil nadin heyen borratceco ordenatu duçun penitentciazco sacramendurat : barkha dietçadatuçu, othoi irragan hutsac, eta eguidaçu gracia etan ez berriz erortceco.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

IV^{en} ESTACIONEA.

Jesusec errecontratcen du bere Ama.

CONSIDERA çaçu cein doloros behar cen bai Seme Jainco harrentçat; bai Ama hain maitearentçat elkhar errecontratcea, Seme maite hura gatchtaguin batçuez hain itsuski herrestatua den demboran, populu handi baten bistan. Hura ikhustean cer dolore eta hersturetan ez cen aurkhitu haren bihotça! Nahi çukeyen athera burreu heyen escuetaric; ordean badaki hala behar dela eguin gure Salbamendua. Guciac harekin sacrificaturic, yarraikico çayo beraz azken hatseraino.

O dolozco Ama! ardiets dieçaguçu mendi sainduraino J. Christo seguitu cinuen amodio hura, eta gurutcearen oineraino eracutsi cinuen curaye hura; deusec ez naçan seculu ceihararaz Jaunaren leguearen bidetic, eta apartaraz Jesu-Christo ganic.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

 V^{en} ESTACIONEA.

Simon laguntcen çayo gurutcearen kharreyatcen.

CONSIDERA çaçü Jesu-Christoren gu ganaco ontasuna. Mundua jassaiten duenean ez du escas indarra gurutcearen jassaiteco, bainan nahi daucu irakhatsi gure lagunetaric paraitceco içanen ditugunen juntatcen haren sofricarekin.

O Jesus, ene Jauna! cerorrec jassanic gurutce-ric dorpheena, arinena uzten derotaçu niri, eguidaçü, othoi, gracia neure buruaren hain etsai ez içaiteco, non ez baidut ekharri nahico. Hitz datçut, Jauna, çure amorea gatic, eta çure misericordiaz baliatceco jassanen ditudala errencuratu gabe neure lagunaren ganicaco escassia eta agarabio guciac.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

 VI^{en} ESTACIONEA.

Emacume debot batec chukhatcen dio beguithartea.

CONSIDERA çaçü soldado soka hura cilhaturic, bere Nausi dibinoaren gana hurbiltcen den emacume horren animoa. Aurkhitcen du thuz, herautsez, icerdiz eta odolez suntsitua. Hunkitua nigarretaraino, amodioac emaiten du beldur gu-

ciez gorago; hurbiltcen da Jesusen ganat, eta chukatcen dio Aingueruec eta Sainduec ikhararekin baicen beira ez dioçoketen beguitharte deseguin hura.

O Jesus gure Nausi eta Erreguea! emadaçu, othoi, emacume saindu horren imitatceco bertutea, munduco consideracione guciac osticaturic goraki eracuts deçadan neure fedea mundu guciaren bistan.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

VII^{en} ESTACIONEA.

Jesus erortcen da bigarren aldicotz.

CONSIDERA çaçü Bictima saindu horren estatua, hedatua bere sacrificioço egurraren pean, eta pharatua bere burreuen tratamendu crudelei: bigarren errorico hau Jesu-Christoc guretçat duen amodio handiaren froga berri bat da. Nahi daucu eracutsi berriz bekhatuan erortceac ez darocula exiaraci behar, bainan bai erneago atchicaraci.

O Jesus ene Salbatçailea! barkha dietçadaçu, othoi, berriz ere ene bekhatuac; borthitz neçaçu gure graciaz bekhatuzco occasioneen contra; emadaçu, othoi, atçartaçuna neure buruaren gainean, fermu içan nadin çure gracion.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

VIII^{en} ESTACIONEA.

Jesusec contsolatcen ditu Israelgo presuna doloratu darraizconac.

MIREX çaqu Jesu-Christoren inerostasuea. Bere doloreez casuric eguin gabe gucia hartua da gure Salbamenduaz; erraiten badiote ez deçaten nigarric eguin haren gainean; inan bere eta bere ondo-coen gainean. Ah! hortan eracusten daucu gure doloreac estimu guti lukeela, baldin gure bekhatuez beçala gure lagunez nigar eguiten ez badugu.

O Salbatçaile maitea! emoçute, othoi, ene bi-hotçari ene lagunen Salbamenduaren nahi khartsubat, bekhatoreen conbertsionearentçat othoitcean ohenetan eta penitencian, khartsuki emanaraz neçakena, mereci deçadan çure contsolacionezco hitcen adicea heyekin.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

IX^{en} ESTACIONEA.

Jesus erortcen da hirur garren aldian.

CONSIDERA çaqu Jesus heldua mendiaren gainera. Behatcen du bere etsaien errabiac sacrificatu behar duen tokira. Içanen ciren bekhatuzco erre-

chutec, sacramenduen profanacionec; eta haren graciac eta haren odola cembeitentçat alfer içanen ciren ikhusteac hersten eta transitcen du haren bihotça jassan behar dituen tormentec baino borthizkiago.

Consiideracione horrec aurdikitcen du hain tristecia eta flakecia handian, non erortcen baitda bere hagonian beçala, beguitharteaz lurerrat.

O Jesus, amodioaren bictima! onhets çaçu, othoi, hemen ene bihotz doloratuac, çure bihotça hola hersten duten ausarcia eta profanacioneez eguiten darotçun amanda onorablea; emadaçu indarra icigarrekeria horien penitenciaric gogorrenez erreparatceco, eta eguidaçu gracia çu ganat bethicotz helaraz neçaketen beçala çure graciaez baliatceco.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

X^{en} ESTACIONEA.

Jesus biluzten dute.

Consiidera çaçu nolacoa cen Jesusen sofricaria burreuec bilhuci çutenean; arropac khentcearekin haren çauri guciac ideki eta sarrakistan emaiten dire, eta erreberitcen dute açotezco suplicioa. Cer dolore ez cen harentçat, hambat eta halaco ikhustiarren bistian, estatu hartan aguertcea!

O Jesus saindutasunaren Jaincoa ! gure guritasun tchar eta axeguin liçunez satisfaccione eguitemo uzten duçu çure burua hola biluzterat ; ikhugarri nigar eguingarri horren bistan ahalcatua ; neure gorphutsari eguin ditudan mainez, cinki deliberatcen dut çure graciarekin batean, neure sensuac mortificatuz eguin detçakepan satisfaccione gucien eguiterat.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

XI^{en} ESTACIONEA.

Jesus Gurutceari itçatua da.

CONSIDERA çaçu Jesu-Christo bere berreuei cein humilki pharaten den ! uzten ditu bere escu eta oinen itçacerat ! batere errencuratu gabe ; sentitcen ditu bere heçurrac junturetaric atheratcen, bere çainac ethentcen, bere odola gurutcea behera yuaiten, bere bihotça egarriac erretcen, bere indar guciac akhitcen ! Ah ! ceren gu gatic obedient içan nahi baitcen gurutceraino, Jondoni Pauloc dioen beçala.

O ene Nausi dibinoa ! ala goraki condenatcen baiditutçu çure legue sainduaren alderaco ene desobedientçiac ! Ala sarcorra baiç da hemen amodio propia, eta naturaleçaren contrasta guciac bentçutcen dituen obedientcia ossoaren gainean

emaiten darotaçun exemplua ! Eguidaçu, othoi, gracia hortaz baliatceco, ez deçadan behinere hertce nahiric içan çurea baicen.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

XII^{en} ESTACIONEA.

Jesus hiltcen da gurutcean.

CONSIDERA çaçü Jesus hiltcen bi ohoinen artean, eta bere Jaincotasunaz eracusten miraculuric handienez. Azken hatsa eman duen pontuan, lurra ikharatcen da, harrocac erdiratcen, temploco beloa urratcen, iguskia ilhuntcen, eta hilac hobietaric bizturic ilkhitcen. Horiec ikhussiric, capitaina obligatua da, bulharroc jotcen dituelaric, aithorcerat eguiazki hura Jaincoaren Semea cela.

O ene Salbatçaile maitea ! ez deçaçula, othoi, permeti, creatura guciac çure heriotceaz doloratcen diren demboran, sendimendu gabe içan nadin eta esker gabe. Argui çaçü ene adimendua, phorosca çatçu ene passioneen gatheac, atçarraçu, othoi, ene fede lokharcaturia, halaco moldez, non ez deçadan behinere biztatic gal gurutce hortan hil nahi içan duçun estatua, eta hor emaiten çarotaçun eracuspenez erreguela deçadan nere bicia heriotceraino.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

 XIII^{en} ESTACIONEA.

*Jausten dute Jesus gurutctic, eta emaiten bere
Amaren escuetan.*

CONTSIDERA çaqu Ama samur harren dolorea bere Semea hila ikhustean. Bere bessoetan hartcen du depot sacratu hori; beguira dahoco beguitharte deseguin eta odolstatu hori; begui iraungui, escu eta oin cilhatu heyer. Jaincoac baicen ez deçake compreni ikhusgarri hori cer martyriocen harentçat.

O Maria! ni naiz çure bihotzminaren causa Ene bekhatuec cilhatu dute çure bihotça Jesus gurutcean emaiterekin; bainan orhoit çaite, ô Maria! ene Ama eta ene bihartecoa çarela Jaincoaren aintcinean; damuric minena dut içanaraci daitçudan doloreez, arnegatcen dut bekhatuari, hitz dautçut çure berthutei yarraikico naicela; çu baithan dut ene fidantcia: lagun naçaqu, othoi, orai eta ene heriotcean.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

 XIV^{en} ESTACIONEA.

Jesus emaiten dute hobian.

CONTSIDERA çaqu Jesusen gorphutça hobi hartan, eta orhoit çaite çurea orobat daitekela laster,

eta çure arima yuanen dela Jaincoaren aiticinerat bere seculaco, çorion edo çorigaitceco arrastaren aditcerat.

O ene Salbatçaile dibinoa ! heriotce on bat niri cobratceco, eta hartarat preparatcen irakhasteco, hil çarenaz gueroz, ez deçaçula, othoi, permeti çure graciac alfer içan ditene enetçat, ehorskitçu hobi hortan ene gaichtakeria guciac, eta ni bait-han den creaturen ganaco yaidura gucia : ene bicia penitencian eramane eta berthutean fermu içanic mereçi deçadan bethico çure loriaz goçatcea.

Gure Aita, Agur Maria, Gloria.

Solenelki eguiten denean gurutcearen bidea, edo Estacionea, Sacramendu Sainduaren aiticinean cantatcen da :

O Cruce, ave, spes unica !

Mundi salus et gloria :

Auge piis justitiam,

Reisque dona veniam.

Eta guero apheçac iracurtcen du othoitça. *O Jesus, etc.*, 3 plaman.

Estacionera yuaite guçietan cantatcen da ceremonia huni dahocon cantica phartsu bat, eta :

Santa mater istud agas :

Crucifixi fige plagas

Cordi meo validè.

Estacione bakhotcharen hastean cantatcen du apheçac :
 y. Adoramus te, Christe et benedicimus tibi.

r. Quia per sanctam Crucem tuam redemisti mundum.

Guero belhaunicaturic erraten ditu *Othoitçac*, ondoan cantatcen du :

Ÿ. Miserere nostri Domine.

℞. Miserere nostri.

Ÿ. Fidelium animæ per misericordiam Dei.

℞. Requiescant in pace. Amen.

Estacioneen ondoan bihurtcenda gurutcea, cantatcen direlaric cembait cantica phertsu, eta sanctuarioan cantatcen dira seguidaco phertsuac :

Ÿ. Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi.

℞. Quia per sanctam Crucem tuam redemisti mundum.

Ÿ. Ora pro nobis, Virgo dolorosissima.

℞. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Ÿ. Signasti, Domine, tuum servum Franciscum.

℞. Signis redemptionis nostræ.

Ÿ. Oremus pro pontifice nostro N.

℞. Dominus conservet eum et vivificet eum, beatum faciat eum in terrâ, et non tradat eum in animam inimicorum ejus.

Ÿ. Oremus pro fidelibus defunctis.

℞. Requiem æternam dona eis Domine, et lux perpetua luceat eis.

OREMUS.

Respice, quæsumus, Domine, super hanc familiam tuam, pro qua Dominus noster Jesus-Christus non dubitavit manibus tradi nocentium, et Crucis subire tormentum.

Domine Jesu-Christe, Fili Dei vivi, qui horâ sextâ, pro Redemptione mundi, Crucis patibulum ascendisti, et sanguinem tuum pretiosum, in remissionem peccatorum nostrorum fudisti, te humiliter deprecamur, ut post obitum nostrum, januam paradisi nos gaudentes introire concedas.

Interveniat pro nobis, quæsumus, Domine Jesu-Christe, nunc et in horâ mortis nostræ apud tuam clementiam, beata virgo Maria mater tua, cujus sacratissimam animam in horâ tuæ passionis, doloris gladius pertransivit.

Domine Jesu-Christe, qui refrigescente mundo, ad inflammandum corda nostra tui amoris igne, in carne beatissimi Francisci, passionis tuæ sacra stigmata renovasti, concede propitius, ut ejus meritis et precibus, crucem jugiter feramus et dignos fructus penitentiæ faciamus.

Omnipotens sempiternæ Deus, miserere famulo tuo pontifice nostro N. et dirige eum secundum tuam clementiam in viam salutis æternæ, ut, te donante, tibi placita cupiat, et totâ virtute perficiat.

Deus, veniæ largitor et humanæ salutis amator, quæsumus clementiam tuam ut nostræ congregationis fratres, propinquos et benefactores, qui ex hoc seculo transierunt beatâ Mariâ semper virgine intercedente, cum omnibus Sanctis tuis, ad perpetuæ beatitudinis consortium pervenire concedas. Per Dominum nostrum Jesum-Christum, etc.

Aphezac cantatzen du hirur aldiz : Parce, Domine, parce populo tuo.

Populuac ihardesten du orobat : Ne in æternum irasaris nobis.


Cantariec : Pie Jesu Domine, dona eis requiem.

Populuac : Sempiternam.

Lehen cantariac : Jube Domine, benedicere.

Apheçac : Benedicat nos Dominus Noster Jesus-Christus, qui pro nobis flagellatus est, crucem portavit et fuit crucifixus. R). Amen.





... ..
... ..
... ..
... ..

... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..

... ..

... ..

... ..

... ..

... ..
... ..
... ..



BAYONAN, Clero & Sacerdote Inordinacione